

JARRAIBIDEAK Ospitalizazioko Unitatea NEUMOLOGIA

Dei egiteko beharrea bazaude, erabili gelako txirrina GUREAN ZAUDEN BITARTEAN JARRAITU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Ospitaleratutako pazienteak zarenaz, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta osasun-sistemak eskaintzen dituen zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu.
- Ospitalizazio-unitatetik borondatez irteketan, eskatzen dizugu osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea, laguntza- asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu.**
- Garbiketerako, gelan bertan komuna duzu, eta dutxa unitatean.
- Dei egiteko beharrea bazaude, erabili gelako txirrina, horrela lana errazten baitiguzu; kontrolera ateratzen bazara, baliteke gure lana oztopatzea.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Inoiz ez kendu oxigenoa, alde aurretik kontsultatu gabe.
- Ospitalean zauden bitartean, tratamendua jarriko dizugu, normalean hartzen dituzun sendagaiak kontuan hartuta. Beraz, ez kezkatu sendagai haiengatik, eta guk emandako sendagaiak bakarrik hartu.
- Ez ahaztu ospitalean ISILTASUNA beharrezkoa dela.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lurgabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

MEDIKUAREN IKUSTALDIA / SENIDEEI INFORMAZIOA



- Egunero, igandeetan izan ezik.
- 9:00etatik 13:00etara.
- Ordu-tegi honetan **paziente bakoitzarekin lagun bat bakarrik onartuko da.** Medikuak senideei gelatik kanpo emango die gaixotasunaren bilakaeraren berri.

OTORDUAK



9:00etan	Gosaria
13:00etan	Bazkaria
17:00etan	Merienda
20:00etan	Afaria

BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
 - Gehienez pertsona 1 paziente bakoitzeko.**
- Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren enpresa edo familia-medikuarentzako **egiaztagiria** paziente edo senideek behar dutena, behe solairuko harreran, jasotzen da.



TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora.

Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



KAFETEGIA *Ordutegia: 7:30etik 22:00etara.*


Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen



OSPITALEKO ALTA: Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



ERLIJIO ZERBITZU KATOLIKOA

Harremanetarako Telefonoa: 618 75 14 15

PAZIENTEARENTZAKO ETA ERABILTZAILEARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ) Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera).